

HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

eusLiderrak

INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016-05-12

1	Izena	Euskaraz Koop. Elkartea - Ahize - AEK
2	Hizkuntza	Euskara
3	Lan-arloa (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	Helduen euskalduntzea Hizkuntz-normalkuntza Erabilera jarduerak Itzulpen zerbitzua Sustapena
4	Kontakturako helbidea edo telefona	mertxe-m@aekeus ahize@aekeus +34 629466023
5	Sare sozialetako kontaktuak (Webgunea, Facebook, Twitter...)	www.aekeus www.korrika.eus Facebook: https://www.facebook.com/aekeuskalakari/ Twitter: https://twitter.com/euskalakariaek

PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIKAPENA

1	Praktikaren azalpena	Hizkuntza portaera berriak sortzeko tailerra: eusLiderrak
2	Praktikaren azalpenaren laburpena	<p>Hizkuntza ohiturak aldatzeak, beste edozein ohitura aldatzeak bezala, ahalegina eskatzen du. Ez da oraindik asmatu horren ordezkoko pilularik. Baina aldaketa hori modu atsegin eta dibertigarrian egin daiteke, ez du zertan sufrimenduan oinarrituta egon. Horretarako, garrantzitsua da aldaketa pausoz pauso ematea, unean uneko helburu lorgarriei eutsiz, eta, parte hartaileen interes arlo eta motibazioetatik ahalik eta gertuen.</p> <p>eusLiderrak saioen helburuak dira: hizkuntzekiko jarrerak landu, eraldaketa sustatu, portaera berriak sortu eta hizkuntza-lidergo indartu.</p> <p>Azkenean, jabekuntza eta ahalmentze prozesu batez hitz egiten ari gara. Hizkuntza komunitate baten iraupena, besteak beste, komunitate horrek aurrera egiteko duen borondatearen baitan dago. Horregatik, garrantzitsua da hizkuntza gutxiagotua erabili nahi dugunok bizi dugun sumisio egoeraz jabetu, eta berdintasuna lortzeko pausoak ematea. Beti ere, etengabeko hobekuntza prozesu gisa ulertuta.</p> <p>3-6 saio laburrek osatzen dute eusLiderrak. Saio horietan, era egituratuan, zenbait informazio, tresna eta eredu eskaintzen zaizkie parte-hartaileei. Helburua da —euskaraz hitz egiteko lotsak, beldurrak edo aurreiritziak gainditzearekin batera— ekintza bat burutzea euskaraz. Lortutako aldaketa hori, txikia izanik ere, emozionalki esanguratsua bada, arrakalatu egingo du orain</p>

		<p>arteko sistema, eta, ondorioz, pentsamendua berregituratu beharra ekarriko du.</p> <p>Pentsaera zuzentzaile berri horrek, atzetik, portaera- aldaketa gehiago eta iraunkorrak ekarriko ditu.</p> <p>eusLiderrak proiektuaren metodologia eta egitura EHUko Gizarte Psikologia eta Giza Portaera Zientzien Metodologia Sailak erakundeetan Berrikuntzaren Kultura Sustatzeko martxan jarritako proiektu batean du oinarria. Metodologia horri Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzak gehitu dio hizkuntzen kudeaketaren arloko informazio giltzarria eta kudeatzen dituen proiektuetan jasotako eskarmentua.</p> <p>eusLiderrak egitasmoa nahi beste aldiz errepika daitekeen zikloa da.</p> <p>Laburtuz, EusLiderrak-ek euskararen erabilera informala areagotzea du helburu, norbanakoen hizkuntza jarreran eraginez, ondoren norbanako horiek euren ingurukoengan eragin dezaten. Xede hori lortzeko tresnak eta baliabideak eskaintzen zaizkio tailerrean parte hartzen duenari. 3-6 saio laburrek osatzen dute eusLiderrak tailerra.</p>
3	Aurrekariak (Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)	<p>eusLiderrak proiektu pilotu batekin jarri zen martxan, Udal bateko langileekin, 2010ean. Halere, bi urte lehenago hasi zuen Ahizek egitasmoaren lanketa, EHUko Gizarte Psikologia eta Giza Portaera Zientzien Metodologia Sailaren laguntzarekin. Esperientzia hura Eralan II Hizkuntza Lidergoa aztergai ikerketan garatu zen, hau da, lan arloan euskararen erabilerearen sustapenean eragiten duten faktoreak aztertzeke egitasmoaren baitan.</p> <p>eusLiderrak tailerra kontratatzen dutenen kezka nagusia da “hizkuntza gaitasuna duten pertsonak ez dutela euskara erabiltzen euren esparruan edo inguruan”. Hizkuntza portaera hori aldatuko duen zerbait bilatzen dute, laburra eta eraginkorra, hizkuntza portaera berriak sortu eta erabilera areagotzeko.</p>
4	Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzen garrantziari buruzko informazio esanguratsua eman eta hizkuntzekiko jarrerak landu • Hizkuntza-lidergoa eta talde-lana indartu • Eraldaketa sustatu eta portaera berriak sortu
5	Eragin esparru nagusia eta albokoak	<p>Kontuan izanda portaera berriak sortzea helburu duen egitasmoa dela, portaera horretan eragin dezaketen aldagaiak hainbat mailatakoak izan daitezke. Esate baterako: norbanakoa, pertsona artekoak, erakundea, komunitatea eta politika publikoak. Helburua lortzeko, komeni da maila sistemiko guztietan eragitea, baina zaila da egitasmo bakar batek guztietan batera egitea hori. eusLiderrak lehenengo bietan eragiten du bereziki, norbanakoan eta pertsona artekoan, eta, neurri batean, ezartzeko eraren arabera, baita erakundean ere</p>
6	Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Psikologia eta Giza Portaera Zientzien Metodologia Saila. Arloa: Hezkuntza eta Ikerkuntza • Soziolinguistika Klusterra. Arloa: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza
7	Inplementazio-epea	2011an sortu genuen eta egun arte

INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	Hedapena (eragiten dien pertsona kopurua, barnekanpo hedapena...)	Martxan jarri zenetik, guztira 800 bat lagunek jaso dute eusLiderrak tailerra; ikastetxeetako ikasleak eta irakasleak, enpresetako langileak eta administrazioako langileak
9	Inbertsioa (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	
10	Lortutako emaitzak	<p>Iritzi onak jaso ditu tailerrak, eusLiderrak egitasmoaren balorazio orokorra eta saioen puntuazioa 8tik gorakoa izan ohi da.</p> <p>Proiektua baloratzerako orduan, hartzaileek adierazi dute atsegina, dinamikoa eta dibertigarria dela; gustura aritu izana aitortu dute. Eta horrelako baieztapenak ere izan dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Euskara gehiago egiten dugu eta euskara ez dela hizkuntza txikia ikasi dugu” • “Proiektu hau erabilgarria izan da, euskara gehiago erabiltzen dugulako” • “Oso dibertigarria eta gustukoa izan da, gainera gauza asko ikasi dugu” • “Proiektu honekin euskara bultzatu nahi dugu. Ez da erraza izan proiektu hauek egiteko denbora izatea. Baina, azkenean, arrakasta izan dugu proiektu hauekin” • “Taldea proiektuak egitea dibertigarria izan da eta modu desberdin batean azaldu dugu jendeak euskaraz mintzatzea nahi dugula eta benetan garrantzi handia duela” • “Azkeneko egunean egin dugun saioa oso dinamikoa izan da, eta gure iritzia emateko aukera izan dugu”
11	Dokumentazioa erreferentziatzko materiala	<ul style="list-style-type: none"> • HIZPIDE 82 (2014), 30-54 or. • Aizu aldizkaria 406 (2016, apirila), 14-17 or. • Bizkaia irratia elkarrizketa (2016-05-12) • Gernika Lumoko Udala, 2014-05-15
12	Aurkezpen bideoa	
13	Intereseko informazio gehigarriak	